

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 23/2024 Foru Dekretua irailaren 17koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeagatiko laguntzen oinarri arautzaileei**

1962an Nekazaritza Politika Erkidea (NPE) sortu zenetik, politika hori sektorearen erronketara eta herritarren behar berrietara egokitzen joan da, hainbat erreformaren bidez.

NPEren azken erreforma 2021eko abenduan amaitu zen, oinarriak ezartzen dituzten hiru erregelamendu argitaratuta eta, dagozkien erregelamendu eskuordetu eta betearazpenekoe-kin batera, 2023-2027 aldian NPEren aplikazioa araututa, luzapen posibleei kalterik egin gabe.

Alde batetik, 2021/2115 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko abenduaren 2koa, nekazaritza politika erkidearen esparruan (NPEren plan estrategikoak) estatu kideek landu behar dituzten plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen dituen, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatua, eta 1305/2013 (EB) eta 1307/2013 (EB) Erregelamenduak indargabetzen dituena.

Bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2116 (EB) Erregelamendua, 2021eko abenduaren 2koa, nekazaritza politika erkidearen finantzaketari, kudeaketari eta jarrapenari buruzkoa eta 1306/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena.

Eta, azkenik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2117 (EB) Erregelamendua, 2021eko abenduaren 2koa, erregelamendu hauek aldatzen dituena: 1308/2013 (EB) Erregelamendua, nekazaritzako produktuen merkatuen antolakunde erkidea sortzen duena; 1151/2012(EB) Erregelamendua, nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitate araubideei buruzkoa; 251/2014 (EB) Erregelamendua, mahastizaintzako eta ardogintzako produktu aromatizatuen adierazpen geografikoen definizioari, deskribapenari, aurkezpenari, etiketatzeari eta babesari buruzkoa; eta 228/2013 (EB) Erregelamendua, nekazaritzaren sektorean Batasuneko eskualde ultraperiferikoen aldeko neurri espezifikokoak ezartzen dituena.

NPE berriak, 2023tik 2027ra aplikatuko denak, aurreko NPEaren funtsezko elementuei eutsiko die, baina laguntzen azken onuradunek bete beharreko baldintzen deskribapenean oinarritutako politika izatetik emaitza zehatzak lortzera bideratutako politika izatera igaroko da, hiru helburu orokorre lotuta: epe luzera elikagaien segurtasuna bermatuko duen nekazaritza sektore adimentsua, lehiakorra, erresilientea eta dibertsifikatua sustatzea; ingurumenaren babesa indartzea eta babestea, biodibertsitatea barne, bai eta klimaren aldeko ekintza ere, eta Batasuneko ingurumenari eta klimari buruzko helburuak betetzen laguntzea, besteak beste, Parisko Itunaren arabera hartutako konpromisoak; eta landa eremuetako ehun sozioekonomikoa indartzea. Helburu orokor horiek, era berean, berriazko bederatzi helburutan banatzen dira. Helburu horiek jasangarritasunaren hiru zutabeetan oinarritzen dira, eta zeharkako helburu komun batekin osatzen dira: nekazaritza sektorea modernizatzea landa eremuen, ezagutzaren, berrikuntzaren eta digitalizazioaren bidez.

2023-2027 aldiko NPEren berrikuntza nagusietako bat da estatu kide guztiek NPEren Plan Estrategiko (NPEPE) bakarra izan behar dutela, NPEren helburuak lortzeko laguntza esku hartzeak eta Europako Itun Berdearen ambizioa jasotzeko.

Ildo horretan, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak koordinatu zuen hiru urte inguruko lan prozesu baten ondoren –autonomia erkidegoek parte hartu zuten prozesu horretan, bai beharren diagnostikoaren eta analisiaren hasierako fasean, bai esku hartzeen estrategia eta diseinua artikulatzeko ondorengo fasean–, 2022ko abuztuaren 31n Europako Batzordeak Espainiako NPEren Plan Estrategikoa onetsi zuen, C (2022) 6017 Erabakiaren bidez.

Lehen zutabearen esparruan programatutako laguntza esku hartzeak (laguntza zuzenak eta sektorialak, NBEF funtsak finantzatuak), Estatuan zuzenean aplikatuko direnak, eta bigarren zutabeko landa garapenerako esku hartzeak (LGENF funtsak kofinantzatuak) jaso dira Espainiako NPEPE horretan. Azken horiek autonomia erkidegoetan ezarri eta garatzen dira, kasu bakoitzean ezarri diren eskualde berezitasunekin eta autonomia erkidego bakoitzak bere lurralderako programatu dituen esku hartzeen eta aurrekontuen arabera. Horren ondorioz, Euskadiren kasuan, NBEF funtsaren esku hartze sektorialeak eta zuzeneko ordainketa moduko esku hartzeek gain, landa garapenerako 18 esku hartze programatu dira (LGENF).

Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, NPEPE onetsi ondoren, arau pakete zabala prestatu du, NPEPE behar bezala eta eraginkortasunez ezartzen dela ziurtatzeko. Besteak beste, hauek nabarmendu behar dira:

- 30/2022 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza Politika Erkidea eta hari lotutako beste gai batzuk kudeatzeko sistema arautzen duena.

- 1045/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Nekazaritza Politika Erkidearen esparruan jasangarritasuna bultzatzeko errentaren oinarritzko laguntzaren eskubideei buruzkoa.

- 1046/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren eta NBEF eta LGENF nekazaritzako Europako funtsen gobernantza arautzen duena.

- 1047/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Plan Estrategikoaren esku hartzeak eta Nekazaritza Politika Erkidearen beste laguntza batzuk kudeatzeko eta kontrolatzeko sistema arautzen duena.

- 1048/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, 2023tik aurrera zuzeneko ordainketa moduko esku hartzeak aplikatzeari, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan betekizun komunak ezartzeari eta kudeaketa eta kontrol sistema integratuaren eskaera bakarra arautzeari buruzkoa.

- 1049/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, zuzeneko ordainketak eta landa garapenerako eta POSEI programako urteko ordainketa jakin batzuk jasotzen dituzten onuradunek bete beharreko baldintza indartuak eta gizarte baldintzak aplikatzeko arauak ezartzen dituena.

- 147/2023 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, Nekazaritza Politika Erkidearen plan estrategikoan jasotako esku hartzeetan zigorrak aplikatzeko arauak ezartzen dituena.

- 1177/2023 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Espainian Nekazaritza Politika Erkidea aplikatzeko emandako zenbait errege dekretu aldatzen dituena.

Euskadin programatutako landa garapenerako 18 esku hartzeen artean (LGENF), ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeko laguntzei buruzkoak daude. Laguntza horiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 70. artikuluan araututa daude.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak maiatzaren 28ko 66/2024 Dekretua argitaratu du, Euskal Autonomia Erkidegoan Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa eremuen karakterizazioa finkatzeko dena, Euskal Autonomia Erkidegoan 2023-2027 aldirako Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa inplementatzeko arauak ezartzeko. Plan hori Europako Batzordeak onetsi zuen C (2022) 6017 Erabakiaren bidez, 2022ko abuztuaren 31n.

Horregatik, Espainiako NPEEn xedatutakoaren babesean, eta lehen aipatutako NPEren eremuan aplikatu beharreko estatu arauak betez, Arabako Lurralde Historikoan esku hartze horietarako laguntzen oinarri arautzaileak prestatu behar dira.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 32/2023 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeagatik laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza horietarako 2023rako deialdia, NPEren plan estrategikoaren babesean.

Azaroaren 30eko 15/2016 Foru Arauaren bidez, berretsi egin zen Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan aurreikusitako nekazaritza ekoizpen jasangarriko tekniken bidezko laborantza estentsiboen dibertsifikaziorako nekazaritza eta ingurumen laguntza kudeatzeko. Aurreko programazioaldian, neurri horren deialdia Eusko Jaurlaritzak egin zuen.

2023an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 6ko agindu baten bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko labore jasangarrietarako 2023ko laguntzaren deialdia egin zen, 2023-2027ko NPEren plan estrategikoaren esparruan, eta hitzarmena ekitaldi horretarako luzatuzat jo zen.

Hala ere, 2024tik aurrera, labore jasangarrien esku hartzerako deialdia zuzenean egingo du Arabako Foru Aldundiko Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak, eta, beraz, testu bakar batean sartu behar dira labore jasangarrietarako laguntzen oinarri arautzaileak, gainerako esku hartzeekin batera, eraginik gabe geratu baita Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena, nekazaritza eta ingurumeneko laguntza hori kudeatzeko.

Beharrezkoa da, gainera, 2023an argitaratutako oinarri arautzaileen zenbait kontu argitzea eta zehaztea. Testua sinplifikatzeko eta errazago ulertzeko, erabaki da Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 32/2023 Foru Dekretuaren bidez onetsitako indarreko oinarri arautzaileak indargabetzea eta oinarri arautzaile berriak argitaratzea, indarrean dauden oinarriak aldatu beharrean.

Foru dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude. Hala, azaldutako aurrekarietan behar bezala justifikatu da erregulazio berri baten beharra, eta, gainera, araugintza jardura proportzionatua da; izan ere, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbesteko gutxienez mugatzen da, hau da, nekazaritza eta ingurumeneko laguntzen oinarri arautzaileak eguneratzera. Egiteko, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren edukia eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Halaber, kontuan hartu dira Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egingdako txostenek jasotako oharak. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzeko dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako legez ezarritako epeetan. Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteaturiko arauketak, daukan izaeragatik, ez du eragiten administrazio zama osagarriarik eta beharrezkoak ez direnik herritarrentzat oro har, ezta baliabide publiko gehiago kontsumitzea ere. Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta, horregatik, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeagatiko laguntzen oinarri arautzaileak onestea, erantsitako I. eranskineko artikuluekin bat etorritz.

Bigarrena.- Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Xedapen indargabetzailea.- Indargabetzea foru dekretu honen aurka egiten duten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak eta, bereziki, Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeagatiko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 32/2023 Foru Dekretua.

Azken xedapena.- ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau. Foru dekretu honetan onetsitako oinarri arautzaileak 2025etik aurrera onesten diren deialdietan aplikatuko dira, labore jasangarrien esku hartzea arautzen duen II. eranskinaren A.2 apartatuan jasotakoa izan ezik, hori 2024rako berariazko deialdia onesten bada aplikatuko baita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 17a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritzaren Saileko foru diputatua*

**NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA**

*Nekazaritza zuzendaria*

**DAVID FERNÁNDEZ SARABIA**

## I ERANSKINA

## 1. artikulua. Xedea

1.1.- Foru dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan 2023-2027ko NPEren plan estrategikoan jasotako ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeagatik laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea.

1.2.- Laguntza erregimen honen xedea honako helburu hauek lortzea da:

- a) Klima aldaketara egokitzen eta hura arintzen laguntzea, baita berotegi efektuko gasen emisioak murriztearen eta karbonoa hobeto harrapatzearen bidez ere, eta energia jasangarria sustatzea.
- b) Ura, lurzorua eta airea bezalako baliabide naturalen garapen jasangarria eta kudeaketa eraginkorra sustatzea, mendekotasun kimikoa murriztea barne.
- c) Biodibertsitatearen galera geldiarazten eta lehengorazten laguntzea, ekosistemekin lotutako zerbitzuak bultzatzea eta habitatak eta paisaiak kontserbatzea.
- d) Europar Batasuneko nekazaritzak elikadurari eta osasunari buruzko gizarte eskakizunei ematen dien erantzuna hobetzea, modu jasangarrian ekoiztutako kalitate oneko elikagai seguru eta elikagarrien eskaria barne, elikagaiak alferrik galtzea murriztea, animalien ongizatea hobetzea eta antimikrobianoen aurkako erresistentziari aurre egitea.

1.3.- Honako laguntza esku hartze hauek ezartzen dira (II. eranskinean zehazten dira):

- Nekazaritza eta ingurumen konpromisoak nekazaritzako azaleretan:
  - Esetarako behien arau teknikorako ekoizpen integratua (NPEEn esku hartzeko kodea: 6501.1)
  - Labore jasangarriak (NPEEn esku hartzeko kodea: 6501.2)
  - Biodibertsiterako erlezaintza (NPEEn esku hartzeko kodea: 6501.4)
- Nekazaritza ekologikoko nekazaritza eta ingurumen kudeaketako konpromisoak (NPEEn esku hartzeko kodea: 6503)
- Baliabide genetikoak kontserbatzeko konpromisoak (NPEEn esku hartzeko kodea: 6505.1): Bertako animalia arrazak kontserbatzea.

## 2. artikulua. Definizioak

Foru dekretu honi III. eranskinean jasotako definizioak aplikatuko zaizkio, baita NPEren laguntzak arautzen dituen Estatuko araudian ezarritako definizioak ere.

## 3. artikulua. Hautagarritasun baldintzak

3.1.- Foru dekretu honen babesean, ustiategi eta azalera hauek lagunduko dira:

- a) Eskaera bakarra Arabako Lurralde Historikoan aurkezten duten nekazaritza ustiategi kasuan, Euskadin kokatutako azalera hartuko da kontuan.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoa ez den beste autonomia erkidego batetik datozen eskaerarako, Euskal Autonomia Erkidegoko azalera hartuko dira kontuan, betiere horietako gehienak Araban badaude.

3.2.- Lurzatiak, aprobetxamenduak eta animaliak erregistro ofizial egokietan inskribaturik egon behar dira.

3.3.- Esku hartze ezberdinetan laguntzak jaso ditzaketen lursailak, laboreak eta aprobetxamenduak Lurzati Identifikazio Geografikoko Sistemaren (SIGPAC) indarrean dauden erabileren arabera definitutakoak izango dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egongo dira.

4. artikulua. Onuradunen betekizunak.

4.1.- Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoak, edo nortasun juridikorik gabeko erakundeak, barne hartuta ondasun erkidegoak, jaraunspen jasogabeak edo jaraunspen erkidegoak, merkataritza xederik gabeko sozietate zibilak eta titulartasun partekatuko araubideko ustiategiak, baldin eta eskaera bakarria aurkezten badute eta honako baldintza orokor hauek betetzen badituzte, bai eta esku hartze bakoitzerako II. eranskinean ezartzen diren baldintza espezifikoak ere.

a) Nekazaritza Ustiategiaren Erregistro Autonomikoan behar bezala inskribatuta dagoen nekazaritzako ustiategi baten titularrak izatea —ustiategi profesional gisa sailkatuta egon behar du—, bai eta ekoizpen unitateen tipologiaren arabera dagozkion erregistroetan ere.

b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla frogatzea. Sozietate zibilen, titulartasun partekatuaren eta ondasun erkidegoen kasuan, kide guztiek Gizarte Segurantzaren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatuko da.

c) Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12. artikuluan onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzea.

d) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko legearen testu batagina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluan arabera, sexu bazterkeriagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penalik ez izatea.

4.2.- Beste pertsona juridiko batzuen partaidetza duten pertsona juridikoei dagokienez, sozietatearen osaera adierazi behar dute, kide diren pertsona fisiko guztiak identifikatuta; horrez gain, horietako bakoitzak ustiategi onuradunaren kapitalean zein ehuneko daukan adierazi behar dute.

5. artikulua. Baldintzak eta konpromiso orokorrak.

5.1.- Esku hartze bakoitzean II. eranskinean zehaztutako ingurumen eta klima arloko konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzen dituzten onuradunei emango zaizkie laguntzak, bost urterako. Nolanahi ere, konpromisoaren iraupena programazioaldiaren indarraldiaren arabera izango da. Konpromisoen denboraldia amaitutakoan, eta araudi egokiak eta aurrekontuak ahalbidetzen baldin badute, laguntza urtebetez luzatzeko eskatu ahalko da.

5.2.- Laguntzaren hasierako eskaeran, eskatzaileak laguntza eskaeraren xede den esku hartzearen konpromisoak sinatuko ditu, aurreko atalean adierazitako aldirako, betiere hasierako laguntza eskaera aldekoa izan bada. Nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoa indarrean dagoen hurrengo urteetan, konprometitutako esku hartzearen prima ordaintzeko eskaera egin beharko da urtero.

5.3.- Hartutako konpromisoek programazio aldia gainditzen badute, eta aldi berriari aurreko esku hartzea eskatzeko aukera xedatzen bada, onuradunak programazio aldi berriaren esparru juridikora egokitzea onartu edo baztertu beharko du. Esparru juridiko berrira egokitzeak aukera

izanda ere, onuradunak onartzen ez badu, konpromisoa amaitutzat emango da, inolako zigorrik gabe.

5.4.- Ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeagatiko esku hartzeetarako laguntzek ustiategi osoan bete beharreko gutxieneko arauetatik harago doazen konpromisoak soilik estaliko dituzte (oinarrizko egoera):

- Baldintza indartuak eta gizarte baldintzak aplikatzeko arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretuaren arabera ezarritako kudeaketarako lege betekizunetatik eta nekazaritza eta ingurumeneko baldintza onen (NIBO) arauetatik harago doazen konpromisoak.
- Ongarriak eta produktu fitosanitarioak erabiltzeko edo animalien ongizaterako beharrezkoak diren gutxieneko baldintzetatik harago doazen konpromisoak, bai eta nahitaezko beste baldintza batzuetatik harago ere.
- Nekazaritzako azalera mantentzeko ezarritako baldintzetatik harago doazen konpromisoak.
- Hartutako konpromisoak klimaren eta ingurumenaren aldeko erregimenak betetzeagatik (ekoerregimenak) ordaintzen diren konpromisoez bestelakoak izatea.

5.5.- Konpromisoak irauten duen urteetan, diruz laguntzeko baldintzak eta esku hartze bakoitzean zehaztutako konpromiso espezifikoak betetzea. Ondorio horietarako, honako sailkapen orokor hau ezartzen da, Nekazaritza Politika Erkidearen plan estrategikoan jasotako esku hartzeetan zigorrak aplikatzeko arauak ezartzen dituen otsailaren 28ko 147/2023 Errege Dekretuan jaso:

- Baztertzaila: dirulaguntza emateko ezarritako irizpideak/baldintzak errespetatzen ez dituen urraketa, eta, hala badagokio, laguntza jasotzen jarraitzea.
- Oinarrizko konpromisoa: konpromiso bat, zeina ez betetzeak lortu nahi diren helburuetan ondorio esanguratsuak eragiten baititu, ondorio horiek urtebete baino gehiago irauten dutenean edo ondorio horiei bitarteko onargarriekin amaiera ematea zaila denean.
- Konpromiso nagusia: konpromiso bat, zeina ez betetzeak lortu nahi diren helburuetan ondorio garrantzitsuak eragiten baititu, ondorio horiek urtebete baino gutxiago irauten dutenean edo ondorio horiei bitarteko onargarriekin amaiera ematea posible denean.
- Bigarren mailako konpromisoa: konpromiso bat, zeina ez betetzeak garrantzi txikiko ondorioak baititu laguntza lerroaren helburuan.

6. artikulua. Konpromisoak bihurtzea edo egokitzea.

6.1.- Nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoen bihurtzea edo egokitzea onartu ahalko da indarrean dauden denboraldian, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Bihurtzea onura garrantzitsua baldin bada ingurumenarentzat edo animalien ongizatearentzat.
- Indarrean dagoen konpromisoa modu esanguratsuan finkatzen bada.
- Egokitzapena behar bezala justifikatuta badago, jatorrizko konpromisoaren helburuak betetzea kontuan izanik.

Egokitzapenak konpromisoaren iraupena luzatzea ere izan daitezke.

6.2.- Konpromisoak indarrean dauden aldian zehar arau aldaketa bat gertatzen bada eta aldaketa horren ondorioz konpromisoak zorrotzagoak izatera igarotzen badira, onuradunak erabaki beharko du araudi berrira egokituko den edo konpromisoa amaituko duen. Konpromisoa amaitzea erabakiz gero, onuradunak ez du zigorrik jasoko eta ezingo du eskatu uko egiteko unean ordaindu gabe geratzen diren konpromiso urteengatiko ordainketa.

7. artikulua. Ustiatagia besterentzea eta konpromisoak subrogatzea

7.1.- Hartutako konpromisoa indarrean dagoen bitartean ustiategiaren titulartasuna osorik edo zati batez aldatzen bada, onuradunak berehala jakinarazi beharko dio Arabako Foru Aldundiko Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailari.

7.2.- Konpromisoaren aldia onuradunak bere ustiatagia osorik edo zati batean beste pertsona bati eskualdatzen badio, azken horrek konpromisoari eutsi ahalko dio betetzeke geratzen den aldia edo konpromisoa iraungi ahal izango da, itzulketarik egin beharrik gabe konpromisoa eraginkorra den aldia zehar.

8. artikulua. Laguntza eskaerak.

8.1.- Urtero laguntzen deialdia onetsiko da eta haren barruan honakoak jasoko dira:

- a) Zein esku hartze eta lehenetasun taldeetarako egiten den deialdia.
- b) Deialdia ebatzeko kreditu erreserbak, bai eta, hala badagokio, esku hartze eta/edo lehenetasun talde bakoitzerakoak ere.
- c) Eskaerak aurkezteko epea eta lekua.
- d) Laguntzaren gehieneko zenbatekoa ustiategi eta/edo esku hartze bakoitzeko, hala badagokio.

8.2.- Laguntza eskaerak eskaera bakarrean aurkeztuko dira, horretarako finkatutako datekin bat etorritik. Eskaera epea automatikoki luzatu ahal izango da eskaera bakarra egiteko epea luzatzen den heinean; era berean, eskaerekin batera 9. artikuluan zerrendatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

8.3.- Eskaera aldatzeko gaitutako aldia amaitu ondoren, aukera ematen zaie nekazariari, aurretiazko kontrolen, administrazio kontrolen edo monitorizazio bidezko kontrolen emaitzen ondorioz, eskaera bakarra urte bakoitzeko abuztuaren 31ra arte egokitzeko. Euskal Autonomia Erkidegoak bere jarduketa eremuan eskaera bakarra egokitzeko epea luzatu ahal izango du, Europar Batasuneko erregelamenduek baimendutako gehieneko epearen barruan eta Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtzari jakinarazpen arrazoitua egin ondoren.

8.4.- Laguntza eskaera bat edo beste edozein aitortpen osorik edo zati batean idatziz erretiratu ahal izango da, eta eskaera egiten den urteko abuztuaren 31 izango da azken eguna. Aurrekoa gorabehera, ezin izango da erretiratu agintari eskudunak nekazariari jakinarazi dionean azaleren monitorizazio sistema edo administrazio kontrolak ez diren beste bitarteko batzuen bidez jakinarazitako eskaera bakarrean ez-betetze kasuak daudela, edo jakinarazi dionean tokian bertan kontrol bat egiteko asmoa duela edo monitorizatu ezin den baldintza bat egiaztatzeko asmoa duela, edo, lurraren gaineko kontrol batek edo monitorizatu ezin den betekizun baten egiaztapenak agerian utzi badu ez-betetze kasu bat; ez da onartuko ez-betetzeak eragindako alderdiak erretiratzea.

8.5.- Onuradunak aurkeztutako laguntza eskaerak edota bestelako ziurtagiriak edozein momentutan zuzendu eta aldatu ahal izango dira ordainketaren aurretik, baldin eta agintaritza eskudunak kasu zehatzaren ebaluazio orokorraren gainean onartutako ageriko akatsik badago eta onuradunak fede onez jardun badu.

8.6.- Laguntza eskaera bakoitzean, datuak zuzen betetzeaz gain, eskatzailearen adierazpen bat aurkeztuko da; adierazpen horretan honakoak jasoko dira:

- Laguntza jasotzeko baldintzak ezagutzen dituela.
- Ez duela helburu bererako beste nekazaritzako laguntzarik eskatu.

8.7.- Laguntzen arteko bateraezintasunak, 22. artikuluan deskribatuak, errespetatu beharko dira.

8.8.- Laguntza horiek jasotzeko baldintzak bete behar dituzten eta laguntzetatik eratorritako konpromisoak hartzen dituzten ustiategi elkartuen titularrak eta, hala badagokio, bazkideak izango dira eskaera bakarrean agertzen direnak, eskaera bakarra aldatzeko epea amaitzen den egunean.

9. artikulua. Eskaeraren dokumentuak.

9.1.- Dirulaguntza eskatzeko betekizunak, betekizun horiek egiaztatzeko modua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, 9.2 eta 9.3 artikuluetan aipatzen direnez gain, foru dekretu honen II. eranskinean esku hartze bakoitzerako ezarritakoak dira.

9.2.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela ziurtatzen duen agiria.

Laguntza eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailari baimena ematea zerga betebeharraren eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria zuzenean eskuratzeko. Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta eskakizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Ondorio horietarako, otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan, urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak partez aldatuan (azken foru dekretu hori dirulaguntzen onuradunek zerga eginbeharrak betetzen dituztela kreditatzeko prozedurari eta horrela kreditatu beharrekiko salbuespen araubideari buruzkoa da), xedatutakoa aplikatuko da.

9.3 Arabako Foru Aldundiak beharrezko den dokumentazioa bilduko du laguntza modu telematikoa kudeatzeko, salbu eta eskatzaileak berariaz adierazten badu kontrakoa. Nolanahi ere, Foru Aldundiak beretzat gordetzen du eskubidea betiere beharrezko deritzon dokumentazio osagarria eskatzeko dekretu honetan ezarritako laguntzak eskatzen dituzten pertsoneri, eskaerak behar bezala balioetsi ahal izateko.

9.4.- Eskaeretan akatsak antzematen badira edo zerbait falta bada, organo instrukzio egileak errekerimendua egingo die interesdunei eskatzen diren baldintzei buruzko akatsak konpontzeko eta/edo eskatzen diren agiriak aurkezteko 10 egun balioduneko epean, errekerimenduaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta adieraziko die hori egin ezean atzera egin dutela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

10. artikulua. Izapidetzea

10.1.- Eskaerak aurkezteko epealdia amaituta, espedienteak Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak izapidetuko ditu.

10.2.- Espedientea izapidetzen den bitartean, organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko dizkio eskatzaileari, ebazpen proposamena egiteko beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

10.3 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira. Zehaztutako laguntza eskaerei dagozkien finantza beharrek laguntza horretarako dagoen aurrekontua gaintzen badute, 11. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

10.4.- Laguntza horiek balioetsiko dituen kide anitzeko organoa ondoren aipatzen diren pertsonen edo, beharrezkoa balitz, haien ordezkoez osatuko dute:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua.
- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren teknikaria.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

Ezinezkoa ez bada behintzat, emakumeek ordezkaritza orekatua izango dute.

Foru dekretu honetan ezartzen ez diren kasuei eta zirkunstantziei dagokienez, kide anitzeko balorazio organoak bidezkoztat jotzen dituen irizpideak aplikatu ahalko ditu modu arrazoituan.

#### 11. artikulua. Lehenetasun taldeak

11.1.- Laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko aurrekontuko zuzkidura nahikorik ez badago, onuradun guztien artean banaketa proportzionala egingo da, eman beharreko zenbatekoa aurrekontu erabilgarrira egokitzeko.

11.2.- Laguntzen lehenengo emakida egin ondoren, ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeko laguntzen hurrengo deialdiak egiteko, lehenengo urtean erabilitako zenbatekoa gaintzen duen kreditua egon beharko da. Partidaren kreditua lehen urtean hartutako konpromisoerantzuteko behar baino handiagoa bada, baina ez bada eskaera guztiei erantzuteko nahikoa, honako lehenetasun talde hauek ezarriko dira onuradunak hautatzeko:

1.- 2023-2027 NPEren Plan Estrategikoaren babespean indarrean dauden konpromisoak dituzten eskaerak, konpromiso mailarik altuena izan duen urtean emandako zenbatekoaren berdina den gehieneko zenbatekoarekin. Konpromiso mailarik altuena hainbat urtetan ematen bada, kontuan edukiko da haietan hartutako zenbateko handiena.

2.- Faseka lehenengo aldiz instalatzeko prozesuan eta dagokion NPEPEren esku hartzearen babespean dauden nekazari gazteen eskaerak, konpromiso mailarik altuena duen urtean emandako kopuruarekin alderatuta zenbatekoek izan duten gehikuntzaz.

3.- Delako deialdiaren urtean aurkeztutako eskaera berriak.

4.- Konpromisoak indarrean dituzten gainerako eskaerak, konpromiso mailarik altuena duen urtean emandako kopuruarekin alderatuta zenbatekoek izan duten gehikuntzaz.

Kreditua taldeetako baten eskaera guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, kreditua agortzen den taldeari emango zaizkio laguntzak, 11.1 atalean deskribatutako banaketa proportzionala aplikatuz.

#### 12. artikulua. Laguntzaren kalkulua. Zenbatekoak.

12.1.- Laguntza hauetan, onuradunei urteko prima bat ordainduko zaie nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoaren indarraldiko urteetan. Prima hori esku hartze bakoitzean definituta dago. Laguntza horiek sinatutako konpromisotik eratorritako kostu gehigarriak eta diru sarreren galerak estaliko dituzte (lortu gabeko irabazia).

12.2.- Azpineurri bakoitzeko laguntzaren kalkulua II. eranskinean zehazten da.

12.3.- Laguntza hauek ez zaizkie nekazariari emango, baldin eta ingurumen eta klima konpromisoekin eta bestelako kudeaketa konpromisoekin lotutako esku hartze guztietarako 300 eurotik beherako guztizko zenbatekoa badute, dirulaguntzen irizpideak edo baldintzak ez betetzeagatik administrazio zigorrak aplikatu aurretik.

#### 13. artikulua. Kontrolak

13.1 Onuradunek onargarritasun betekizunak eta foru dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak administrazio kontrolak, monitorizazio kontrolak eta baldintzen kontrolak egingo ditu, honako arau hauetan ezarritakoaren arabera: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamendua, nekazaritza politika erkidearen finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa eta 1306/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena; abenduaren 27ko 1047/2022 Errege Dekretua, Nekazaritza Politika Erkideko plan estrategikoko eta beste laguntza batzuetako esku hartzeen kudeaketari eta kontrolari buruzkoa; eta abenduaren

27ko 1049/2022 Errege Dekretua, zuzeneko ordainketak eta landa garapeneko eta POSEI programako urteko ordainketa jakin batzuk jasotzen dituzten onuradunek bete beharreko baldintza indartuak eta gizarte baldintzak aplikatzeko arauak ezartzen dituena.

13.2.- Onuradunak utzi behar du Arabako Foru Aldundiak ustiatzean agindutako ikuskatze bisita guztiak egiten, eta eman behar du laguntzaren gainean eskatzen zaion informazio guztia.

14. artikulua. Zigorrek, murrizketak eta zehapenak aplikatzea

14.1. Zigorrek eta murrizketak aplikatzeko, otsailaren 28ko 147/2023 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko da. Dekretu horren bidez, Nekazaritza Politika Erkidearen plan estrategikoan jasotako esku hartzeetan zigorrek aplikatzeko arauak ezartzen dira.

14.2. Atariko eta lehenengo tituluetan zehaztutako zigorrek aplikatuko dira, eta mugarik gabe, honako hauek:

- a) Eskaera epez kanpo aurkeztu izana.
- b) Nekazaritzako lurzati guztien azalaren aitorten osatugabea.
- c) Baldintzak.
- d) Gainazalen gehiegizko aitortenaren ondoriozko zigorra.

14.3. Halaber, aplikatzekoa izango da, besteak beste, abenduaren 23ko 30/2022 Legean, Nekazaritza Politika Erkidea eta hari lotutako beste gai batzuk kudeatzeko sistema arautzen duenean, eta abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretuan, zuzeneko ordainketak eta landa garapeneko eta POSEI programako urteko ordainketa jakin batzuk jasotzen dituzten onuradunek bete beharreko baldintza indartuak eta gizarte baldintzak aplikatzeko arauak ezartzen dituen, definitutako arau hausteen eta zehapenen araubidea.

14.4.- Ez da zigorrik ezarriko ez-betetzea ezinbestezko arrazoiengatik edo otsailaren 28ko 147/2023 Errege Dekretuaren 5. artikuluan aurreikusitako beste inguruabar batzuegatik gertatzen bada. Errege Dekretu horrek Nekazaritza Politika Erkidearen plan estrategikoan jasotako esku hartzeetan zigorrek aplikatzeko arauak ezartzen ditu.

14.5.- Ezin izan bada konpromisoa bete ezinbestezko arrazoiengatik edo salbuespeneko inguruabarrengatik, dagokion ordainketa proportzionalki kenduko da ezinbestezko kasua edo salbuespeneko inguruabarra gertatu den urteetarako. Ezinbestezko kausa edo salbuespeneko inguruabarrak gertatu aurretik kostu gehigarriak edo lortu gabeko irabazirik izan ez duten konpromisoko alderdiei soilik eragingo die ordainketa kentzeak. Laguntzak ez dira kenduko diruz laguntzeko irizpideei eta gainerako betebeharrei dagokienez, eta ez da zigorrik ezarriko.

14.6 Konpromisoak indarrean dituzten pertsonen nekazaritza jarduera profesionala behin betiko uzten badute, konpromisoak iraungi egingo dira, eta ez da inolako itzulketarik eskatuko konpromisoa eraginkorra den aldia dela eta.

14.7.- Onuradunak laguntza jasotzeko datu faltsuak eman dituela edo zabarkeriagatik beharrezko informazioa eman ez duela erabakitzen denean, laguntza ukatuko zaio edo osorik kenduko zaio. Gainera, onuraduna laguntza edo esku hartze beretik kanpo geratuko da irregulartasuna antzeman den urte naturalean edo laguntza deialdian, eta hurrengo bi urte naturaletan edo laguntza deialdian.

15. artikulua. Dirulaguntzak jasotzeko baldintzak eta beste konpromiso edo betebeharrak batzuk ez betetzeagatik murrizketak eta zigorrek

15.1.- Eskatutako laguntza osorik ukatuko da, baldin eta dirulaguntzak jasotzeko baldintzak, konpromiso baztertzailak edo oinarritzko egoera ez badira betetzen ustiatze osoan. Diruz laguntzeko irizpideak edo baldintzak ez betetzea dagokienez, ez-betetze bat baztertzailatzat hartuko da, baldin eta ez-betetze horrek ez baditu betetzen dirulaguntza emateko eta, hala badagokio, laguntza mantentzeko ezarritako irizpideak edo baldintzak.

15.2. Konpromisoak edo beste betebeharrak ez betetzeagatik zigorren kalkulari dagokionez, laguntza ukatu edo kendu egingo da, osorik edo partzialki, ezarritako konpromisoak betetzen ez badira. Ez-betetze horiek berariaz kalifikatzeko eta laguntzaren zigorraren ehunekoa zehazteko, ez-betetzeak baloratu eta ebaluatu beharko dira, haien larritasunaren, irismenaren, iraunkortasunaren, errepikapenaren eta asmoaren arabera. Ez-betetzearen proportzionaltasuna kontuan hartuko da azalera edo animalia jakin bati bakarrik eragiten dion zehazteko; kasu horretan, murrizketa ustiategiaren zati horri aplikatuko zaio. Hala ez bada, ustiategi osoari egotzi beharko zaio.

- Oinarrizko konpromisoa ez betetzea: ehuneko 50 murrizketa laguntzan. Konpromisoaldian oinarrizko konpromiso bera berriro betetzen ez bada, laguntza ukatu egingo da.
- Konpromiso nagusia ez betetzea: ehuneko 20 murrizketa laguntzan. Ez-betetzeak behin eta berriz gertatzen badira, ehuneko 40 murrizketa aplikatuko da konpromiso bera betetzen ez den bigarren urtetik aurrera.
- Bigarren mailako konpromisoa ez betetzea: ehuneko 5 murrizketa laguntzan. Ez-betetzeak behin eta berriz gertatzen badira, ehuneko 10 murrizketa aplikatuko da konpromiso bera betetzen ez den bigarren urtetik aurrera.

Konpromiso bat baino gehiago behin baino gehiagotan betetzen ez direnean, haietako bakoitzari aplikatu ahal zaizkien murrizketak gehituko dira.

15.3. Konpromisoaren aldiaren konprometitutako gehieneko azalera edo AzLU kopurua mantendu ezean, honako zigor hauek aplikatuko dira:

MURRIZKETA		
* MURRIZKETA EHUNEKOA, KONPROMITUTAKO GEHIENKO AZALERATIK EDO AzLU KOPURUTIK	EZ-BETETZEAREN 1. URTEA	EZ-BETETZEAREN 2. URTETIK AURRERA
Labore jasagarrietan: ehuneko $20 < \text{murrizketa} \leq \text{ehuneko } 40$	ehuneko 20	ehuneko 40
Gainerako esku hartzeetan: ehuneko $10 < \text{murrizketa} \leq \text{ehuneko } 40$		
ehuneko $40 < \text{murrizketa} \leq \text{ehuneko } 60$	ehuneko 50	ehuneko 100
ehuneko $60 < \text{murrizketa} \leq \text{ehuneko } 100$	ehuneko 100	ehuneko 100

\* Murrizketa ehunekoa = (hauen bien arteko aldea: konprometitutako gehieneko azalera edo AzLU kopurua; eta dirulaguntza jasotzeko baldintzak, oinarrizko egoera eta konpromiso baztertzailak betetzen dituen azalera edo AzLU kopurua), konprometitutako gehieneko azalera edo AzLU kopuruaz zatituta eta 100ekin biderkatuta.

Nolanahi ere, konprometitutako gehieneko azalera edo AzLUak mantentzea behin eta berriro ez betetzeak ez du ekarriko aurreko urteetan jasotako kopuruak itzultzea.

Konprometitutako azalera edo AzLU kopurua bat etorriko da konpromisoaldian ordaindutako gehieneko azalarekin edo AzLU kopuruarekin. Kontrolen ondorioz ikusten baldin bada dirulaguntza jasotzeko baldintzak, oinarrizko egoera eta konpromiso baztertzailak betetzen dituen azalera edo AzLU kopurua txikiagoa dela konprometitutako azalera edo AzLU kopurua baino, eta zigorra jartzen bada konprometitutako azalera edo AzLU kopurua mantendu ez izanagatik, konprometitutako azalera edo AzLU kopuru berri bat ezarriko da dirulaguntza jasotzeko baldintzak, oinarrizko egoera eta konpromiso baztertzailak betetzen dituen azalera edo AzLU kopurua oinarri hartuz.

15.4.- Dirulaguntza jasotzeko betekizunak, oinarritzko egoera edo nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoak ez badira betetzen eta horren ondorioz ordainketa eskaera ukatzen bada, edo laguntzaren ordainketaren eskaera ez bada aurkezten, ordura arte eskuratutako laguntzak Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko zaizkio, legez aplikatu beharreko interesekin batera, baldin eta egoera horietakoren bat konpromisoaldian zehar bi kanpainatan gertatzen bada.

Konpromisoa indarrean dagoen aldiko edozein urtetan laguntza ordaintzeko urteko eskaera aurkezten ez bada, jarraipena egingo da, dirulaguntza jasotzeko baldintzak, oinarritzko egoera eta lotutako konpromisoak betetzen direla egiaztatzeko.

#### 16. artikulua. Baldintza artifizialak sortzea

16.1.- Onuradunek baldintza artifizialak sortzeari dagokionez, abenduaren 27ko 1047/2022 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoa beteko da, eta arreta berezia jarriko da ustiatzearen zatiketa artifizialean, degresibitatearen aplikazioa saihesteko edo minimizatzeko, bai eta diruz lagun daitezkeen gehieneko unitateak eta/edo ustiatze bakoitzak jaso dezakeen gehieneko dirulaguntza kopurua saihesteko ere.

16.2.- Pertsona fisiko titularra edo ustiatzei elkartutako bazkideak bi ustiatze gitan edo gehiagotan inskribatuta egonez gero, dela bakarka, dela ustiatzei elkartu bateko bazkide moduan, laguntza hau ustiatzei bakar batean konputatuko da, eta bazkide edo kiderik gehien duen ustiatzei elkartua lehenetsiko da.

#### 17. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

17.1.- Kide anitzeko balorazio organoak proposatuta, espedienteak indarreko araudiaren arabera eskumena daukan foru organoak ebatziko ditu. Ebazpenak administrazio bidea amaituko du, eta horren aurreko administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, errekurtsu horretarako arauari jarraikiz. Gainera, aukerako berraztertze errekurtsua ere jarri ahal izango da.

17.2. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, 8.3. artikuluan ezarritako eskaerak egokitze epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori hiru hilabetez luzatuko da ofizioz, Kudeaketa eta Kontrolerako Sistema Integratuan sartutako gainerako esku hartzeen kontrolen emaitzak jaso ez badira. Epealdi hori igaro eta esanbidezko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, eskaera ezetsi dela esan nahi du, halaxe xedatzen baitu Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 23.5 artikuluan.

17.3.- Laguntzak emateko ebazpenek espediente bakoitzean ezarriko dute zein izango den laguntzaren zenbatekoa eta zein haren finantziazioaren jatorria. Laguntza murriztu edo txikitzen bada edo ebazpen negatiboa badago, arrazoia zehaztuko da, bai eta, hala badagokio, kopurua ere.

17.4.- Laguntzaren ebazpena banan-banan jakinaraziko da eta aurreko apartatuan adierazitako informazioa emango da jakinarazpenean.

#### 18. artikulua. Laguntzak ordaintzea

Laguntza ordainduko da behin Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak Batasunaren indarreko arautegian exijitutako egiaztapen eta kontrolak egin eta gero.

Ordainketa egin ondoren jakiten bada laguntza ematean zeuden inguruabarrak aldatu direla, deialdiaren urtean beste esku hartze edo laguntza batzuen inguruan egindako kontrolen ondorioz, baldintzak betetzearen ondorioz, eta abar, ordainketa egokia birkalkulatuko da, zehazten diren baldintza berriekin bat etorritik. Zenbateko hori ordaindutakoa baino txikiagoa

bada, bien arteko aldea eta berandutze interesak itzulketa espediente bat eginez berreskuratuko dira.

#### 19. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Foru dekretu honetan araututako laguntzen onuradunek betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

- a) Emandako dirulaguntza onartzea. Laguntza eman zaiela dioen jakinarazpena jasotzen duten egunetik aurrera, 15 eguneko epean laguntzari uko egiten ez badiote berariaz eta idatziz, onartu egin dutela ulertuko da.
- b) Foru dekretu honen babespean jasotako laguntzaren inguruan dituzten funtzioak baliatuz, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileko organo eskudunek, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europar Batasuneko organo eskudunek eskatzen duten informazio oro ematea.
- c) Laguntza zuzen eman dela egiaztatzeko behar diren kontrol guztiak gainditzea.
- d) Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduaren 31. artikuluan ezarritako informazio eta publizitate arloko betebeharrak betetzea. Halaber, onuradunentzat ezarritako informazio eta publizitateko betebeharrak bete beharko dituzte, Europako Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2022/129 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 5. eta 6. artikuluetan eta II. eta III. eranskinetan zehaztutakoaren arabera.

#### 20. artikulua. Ebazpenaren aldatzea, ez-betetzeak eta itzulketa.

20.1.- Laguntzaren xedea betetzen bada, baina dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko ebazpena ere aldatu ahalko da.

20.2.- Onuradunek ez badituzte betetzen Foru Dekretu honetan hartutako konpromisoak edo/eta Foru Dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute emandako laguntza jasotzeko eskubidea, eta dagoeneko diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko diote nahitaez, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo bidezko egintzak bideratzeari, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak xedatutakoaren arabera.

20.3.- Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreretatik joko dira, legez dagozkion ondorioetarako.

20.4.- Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntza osorik edo horren zati bat itzuli behar den, ikuskatze edo kontrol txostenari eta itzultzeko proposamenari atxikiz, onuradunari entzun ondoren.

20.5.- Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitako arau hausteengatik zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

#### 21. artikulua. Araubide juridikoa.

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradunek Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako erregelamenduan ezarritako dagoena bete behar dute, bai eta Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko gainerako araudiko xedapen aplikagarriak ere.

#### 22. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

22.1.- Foru dekretu honetan garatzen diren laguntzak bateraezinak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste zeinahi dirulaguntzarekin, xede eta helburu berdinak baditu, kontrakoa berariaz arautzen ez bada Europar Batasuneko, estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko edo foruko legerian, edota Espainiako NPEn Plan Estrategikoan.

22.2.- Esku hartzeak bateraezinak izango dira. Azalerako edo ganaduko unitate bererako ezin izango dira bi prima pilatu kontzeptu ezberdinengatik, baldin eta bateraezintasuna beharrezkoak baina baztertzailak diren ezaugarriengatik sortzen bada; horretarako, ondoko bateraezintasun koadroa ezartzen da.

	6501.1	6501.2	6501.4	6503	6505.1
ekoizpen integratua (6501.1)		X		X	
Laborantza jasangarrirako konpromisoak (6501.2)	X			X	
Biodibertsitaterako erlezaintza (6501.4)					
Nekazaritza ekologikoko nekazaritza eta ingurumen kudeaketako konpromisoak (6503)	X	X			
Baliabide genetikoak kontserbatzeko konpromisoak (6505.1)					

X: lurzati berean bateraezinak diren jarduketak (bateraezintasunak soilik zehaztuko dira lurzatiaren erabilerak bi esku hartzeen aplikazioa ahalbidetzen badu).

### 23. artikulua. Laguntzen finantzaketa.

23.1.- Foru dekretu honetan ezarritako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailaren aurrekontu kredituetatik aterako dira, eta batera finantzatu ahaliko ditu Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF), ehuneko 80an.

23.2.- Arabako Foru Aldundiaren Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak finantziario gehigarria eman ahaliko du, dirulaguntza hauetarako baliabide ekonomikoak handitzera zuzenduta; zenbateko gehigarri hori estatuko finantzaketa osagarritzat hartuko da, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituen kontura.

23.3.- Arabako Foru Aldundiak laguntzaren guztizko zenbatekoa ordainduko dio onuradunari, bai LGENFk finantzatutako zatia, halakorik badago, bai Arabako Foru Aldundiak berak finantzatutako zatia. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) datozen laguntzen zatia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ordainduko dio Arabako Foru Aldundiari, haren erakunde ordaintzailearen bidez, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu araubidea Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen dira), eta Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailaren aurrekontu partidetan sartuko dira, xede horretarako irekitako kontuaren bidez.

24. artikulua.- Iruzzurraren aurkako borroka eta interes gatazka

Europar Batasunaren eta Europako Funtsen kudeaketan inplikaturako administrazioen finantza interesak babesteko, Foru Aldundiak iruzurraren aurka borrokatzeko politika indartuko du, eta laguntzen kudeaketan gardentasuna zainduko du, NPEk kofinantzatutako esku hartzeen esparruan egon daitezkeen interes gatazkei aurre egiteko estrategiak eta neurriak ezartzearen bitartez. Alde horretatik, 2023-2027ko Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa (NPEPE) Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko xedapenak ezartzen dituen dekretuan xedatutakoari jarraituko zaio.

## II. ERANSKINA

INGURUMEN ETA KLIMA KONPROMISOAK ETA BESTELAKO KUDEAKETA  
KONPROMISOAK HARTZEAGATIK EMATEN DIREN LAGUNTZEN ERREGULAZIO  
ESPEZIFIKOA

## A. Nekazaritza eta ingurumen konpromisoak nekazaritzako azaleretan

## A.1 Esetarako behien arau teknikorako ekoizpen integratua (6501.1)

## A.1.1 Helburua

Ekoizpen integratuaren helburua biodibertsitatea sustatzea, baliabide naturalen eraginkortasuna hobetzea eta uren eta lurzoruen kutsadura murriztea da. Ahalik eta baliabide eta mekanismo natural gehien erabiliko dituzten landare ekoizpenerako metodologiak hartzea sustatzen da, epe luzera nekazaritza jasangarria eta baliabide naturalen babesa ziurtatzeko. Horretarako, kontrolerako metodo biologikoak eta kimikoak eta gizartearen eskakizunak, ingurumenaren babesa eta nekazaritzaren produktibitatea bateragarri egingo dituzten beste teknika batzuk erabiltzen dira, bai eta sistemaren babespeko landare produktuak manipulatzeko, ontziratzeko, eraldatzeko eta etiketatzeko eraketak ere. Esku hartze horren helburua da ingurumenari eta klimari mesede egingo dioten nekazaritza jardunbideak mantentzea eta jardunbideetan beharrezko aldaketak egitea. Neurriaren xedea da azalerak ekoizpen integratuko araudiak ezartzen duenaren arabera lantzea, eta horretarako hainbat jarduketa egitea. Jarduketa horien artean honako hauek daude:

- Biodibertsitatea sustatzea eta hobetzea
- Lurzoruko landare estalkia mantentzea
- Lurra, ureztatzeko ura eta labore iraunkorretako hostoak aztertzea
- Labore bakoitzerako ongarritze programa bat ezartzea
- Belar txarrak eta landare hondarrak kentzea
- Lurra prestatzea
- Ureztatzeko teknikak
- Txandaketak

## A.1.2 Dirulaguntza jasotzeko baldintzak eta onuradunen konpromiso baztertzailak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen integratuko eragileen erregistroan izena emanda egotea, ekoizleen sailean, eskaera bakarra aldatzeko epea bukatzen den egunean.
- Dagokion arau tekniko espezifikoak araututako esnetarako behien ekoizleak izatea.
- Ustiategiak gutxieneko azalera hau izatea: ekoizpen integratuko 5.000 m<sup>2</sup>-ko laboreak.
- EAEko ekoizpen integratuari buruz indarrean dagoen araudia betetzea (otsailaren 13ko 31/2001 Dekretua, EAEko ekoizpen integratuari buruzkoa, urriaren 21eko 259/2003 Dekretuz aldatua). Ekintza hori erabatekoa da ekoizpen baldintzei eta baldintza horiek betetzeko kontrol mekanismoei dagokien guztian.
- Arau tekniko orokorra betetzeaz gain laguntza eskaera egiteko unean indarrean zeuden ekoizpen orientazio konprometituei buruzko arau tekniko bereziak betetzea.

## A.1.3 Konprometitutako azalaren konpromiso espezifikoak:

- Konprometitutako azalera urtero mantentzea Konprometitutako azalera bat etorriko da konpromisoa indarrean dagoen bitartean ordaindutako gehieneko azalarekin.
- Urtero, hasiera batean konprometitutako azalera handitzeko aukera izango da. Urteko azalera gehikuntzak ordaintzea aurrekontu baliabideen mende egongo da. Gehikuntza hori diruz

lagundua bada, nekazaritza eta ingurumen kontratu sinatuaren iraupen epea amaitu artean eutsi beharko zaio azalera konprometitu berriari.

- Nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoa indarrean dagoen bitartean, konprometitutako gehieneko azalera gehienez ehuneko 10ean murriztu ahal izango da.

- Ekoizpen integratuko praktika agronomikoak atxikitzea labore jakin baterako baliatutako azalera guztian. Hala, konpromisoa ez da aplikatzen lurzati finkoetan, baizik eta labore finkoetan.

#### A.1.4 Gutxieneko arauak

Nekazaritza ustiategi onuradunek NPEren Plan Estrategikoan esku hartze honetarako adierazten diren gutxieneko arauak bete behar dituzte (oinarrizko egoera):

– Baldintzetako nekazaritza eta ingurumeneko baldintza onei (NIBO) dagokienez:

–5. NIBO: Laborantzaren kudeaketa, lurzoruaren degradazio eta higadura arriskua murrizteko. Horretarako, maldaren inklinazioa kontuan hartu beharko da.

–6. NIBO: Lurzoruaren gutxieneko estaldura, aldi ahulenetan lurzoruak gorri egotea saihesteko.

–7. NIBO: Laboretarako lurren txandaketa, urpeko laboreetan izan ezik.

– Baldintzetako Kudeaketarako Lege Betekizunei (KLB) dagokienez:

–1. KLB: Ur politikaren esparruan jarduteko esparru komunitarioa ezartzea.

– 2. KLB: Urak nekazaritza iturrietatik eratorritako nitratoek eragindako kutsaduratik babestea.

– 8. KLB: Pestiziden erabilera jasangarria lortzeko jarduketa komunitarioaren esparrua ezartzea.

– Ongarriak erabiltzeko gutxieneko baldintzak errespetatzea:

– EAEn arriskupeko gunetzat jo ez diren gunetarako araudi autonomikoa: Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kodean ezarritakoak EAEn arriskupeko gunetzat jo ez diren gunetarako (112/2011 Dekretua; 116. EHAA, 2011/06/20koa).

– EAEn arriskupeko gunetzat jo diren gunetarako araudi autonomikoa: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko maiatzaren 12ko Aginduan ezarritakoak; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko arriskupeko gunetarako jarduketa programa onesten da, nekazaritza jardueratik eratorritako nitratoek ura kutsatzeko arriskuari dagokionez. (108. EHAA, 2021/06/03koa).

#### A.1.5 Dokumentazio berezia

Laguntza eskaeran, kontsulta baimentzeaz gain, edo, halakorik ezean, 9. artikuluan oro har adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, honako dokumentu hauek kontsultatzeko baimena eman beharko da:

– Eusko Jaurlaritzako ekoizpen integratuko operadoreen erregistroko kide izatearen ziurtagiria.

Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta berak aurkeztu beharko ditu eskakizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

#### A.1.6 Laguntzaren zenbatekoa

Laguntza urteko 98 euroko prima da, eskatutako baldintzak eta konpromisoak betetzen dituen bazka laboreen hektarea bakoitzeko.

Onuradunei esleitutako onura publikoko mendiek ez dute kontzeptu horrengatik laguntza jasotzeko eskubiderik izango.

Diruz lagun daitekeen ustiategi bakoitzeko gehieneko azalera 25 hektareakoa izango da.

## A.2 Labore jasangarriak (6501.2)

### A.2.1 Helburua

Labore jasangarrien esku hartzearen helburua da garapen jasangarria eta baliabide naturalen kudeaketa eraginkorra sustatzea, hala nola ura, lurzorua eta airea, hainbat jardun agronomikoren bidez.

### A.2.2 Dirulaguntza jasotzeko baldintzak eta onuradunen konpromiso baztertzailak:

- Labore multzo hauetakoren bateko ekoizleak izatea:

- 1. Multzoa- – Gizakiok jateko aledun lekaleak, lur ureztatuetan udan lantzen direnak
- 2. multzoa. – Lur ureztatuetan udan lantzen diren baratze estentsiboak.
- 3. multzoa. – Hazitarako patata eta gizakiok jateko patata.
- 4. multzoa.— Azukre erremolatxa.

- Ustiategian aurreko paragrafoan aurreikusitako labore multzoaren labore estentsiboen gutxieneko azalera 2 hektareakoa izatea, eta hektarea bat baino gutxiagoko labore multzoek ezin izango dute laguntza jaso.

- Ustiapen koaderno eguneratuta edukitzea, fitosanitarioen, ongarrizteen eta ureztatzeen arloan jasotako aholkularitza teknikoaren arabera.

- Zuzendaritza Teknikoa.

Ustiategiak teknikari arduradun baten zerbitzuak izan behar ditu. Teknikari horren eginkizunak laboreen garapena ingurumen jasangarritasunerako irizpideen arabera zuzentzea, kontrolatzea eta aholkuak ematea izango dira, eta nekazariak teknikariaren jarraibideak ezartzeko konpromisoa hartu beharko du.

- Lurzorua desinfektatzea:

Debekatuta dago lurzorua desinfektatzeko tratamendu kimikoak erabiltzea, teknikoki justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.

- Berdean lurperatzeko laborantza:

lekadun edo kruzifero espezieak erregulariki ereitean datza, lurperatzeko eta lurzorura ongari berde gisa gehitzeko. Labore horiek ezin dira ez partzialki ez erabat aprobetxatu, eta nahitaez lurrera gehitu behar dira.

Ereindako espezieek garapen egokia izan behar dute lurperatzen diren unean, gutxienez ehuneko 75 lurzoru azalera har dezaten. Gutxienez 7 egun baliadun lehenago jakinarazi beharko da lurperatzea. Jakinarazpen horren ondorioetarako, ongari berdea lurperatzeko eskaera aurkeztuko da.

Konpromiso aldi konprometitutako gehieneko azalaren azalera baliokidea erein behar da, konpromiso aldia amaitzen denerako azalera baliokide hori lortu ahal izateko.

Ongarri berdea erein nahi den lurzatiek ustiategiko titularraren eskura egon behar dute dagokion urtean. Horri dagokionez, nekazaritza urtea hartuko da kontuan. Ustiategiko laboreen txandakatzean, lurzati horien hurrengoa ezingo dira izan lugorriak, eta haien aurrekoak ezingo dira izan ez kruziferoak ez lekadunak.

Lurperatzeko laboreak eskaera bakarrean jasotzen direnean, lugorri direla jaso behar da, eta inola ere ez da onartuko lekadun edo kruzifero labore direla jasotzea. Nolanahi ere, estalkia duten lugorri lurzatiak laguntza honetarako zenbatu daitezzen, ezin da eskatu agroekologia eko-erregimena: biodibertsitate espazioak laborantza lurretan eta labore iraunkorretan.

- Laborantza hondarrak lurperatzea:

laguntza jaso duten laboreen uzta hondarrak eta hostoak lurrari gehitzea, lurzati haietan larratzea edo haiek lurzatiatik kentzea eragotziz.

### A.2.3 Konpromiso espezifikoak

#### A.2.3.1 Onuradunak

Onuradunak, laguntza indarrean dagoen aldian, honako konpromiso hauek bete beharko ditu:

##### A.2.3.1.1. – Nahitaezko konpromisoak.

- A.2.3.1.1.1.- Oinarrizko konpromisoak:

— Ongarriketa: lurzoruaren analisi fisiko-kimikoa erabiliko da makromantengaien beharrak kalkulatzeko oinarri gisa, nitrogenoaren kasuan izan ezik. Gutxienez analitika bat eduki beharko da laborantza unitate bakoitzeko. Lurzoruaren analisi fisiko-kimikoa egiteko gutxienezko aldizkakotasuna lau urtekoa da, eta, beraz, gehienez 4 urteko antzinatasuna duen analitika bat eduki beharko da. Laborantza unitatetzat hartuko da landutako azalera unitatea, lurzati batek edo gehiagok osatua —lurzati horiek elkarren ondoan egon daitezke, edo ez—, zeinetan labore bera egiten baita, gutxi gorabehera aldi berean antzeko laborantza praktikei jarraituz eta titular bakar batek kudeatuta.

— Ongarriketa: ez da baimentzen araztegi-tako lohiekin egindako materialak erabiltzea (konpromiso hori ere baztertzaila da lurzatian).

— Ongarriketa: hiri hondakin solidoak (HHS) ezin dira zuzenean erabili (konpromiso hori ere baztertzaila da lurzatian).

— Ongarriketa: Gehieneko ONU ekarpena, bai eremu kalteberetarako bai kalteberak ez direnetarako, eremu kalteberetarako jarduketa programan baimendutakoaren ehuneko 90 izango da: 180 ONU erremolatxan, patatan eta barazkietan, eta 45 ONU lekaleetan.

— Ureztatzea: ureztatze instalazioak konpromiso aldian behin berrikusiko dira, uraren erabileran ahalik eta efizientzia handiena bermatzeko eta baliabide hidrikoak optimizatzeko, ur galerak saihestuz. Berrikuspen hori, gehienez ere, bigarren urtea amaitzerako egin behar da.

— Ureztatzea: balantze hidriko bat izatea, laguntzaren xede diren labore unitate edo multzoen baldintzetara egokitua.

- A.2.3.1.1.2.- Konpromiso nagusia:

— Urteko prestakuntza jardunaldi batera joatea konpromiso aldian. Prestakuntza ikastaroen edukia neurrian adierazitako konpromisoekin lotuta egongo da.

- A.2.3.1.1.3.- Bigarren mailako konpromisoak:  
– Txandaketak:

Gutxienez 3 urtean ez da espezie bera jarriko lurzati berean. Laguntza eskaeraren xede diren labore guztiei aplikatuko zaie nahitaez, eta uneren batean laguntza eskaeraren xede diren lursail guztietan betetzen dela kontrolatuko da (konpromiso baztertzaila da lurzatian, eta bigarren mailakoa ustiategian).

#### A.2.3.1.2. – Borondatezko konpromisoak.

Aurreko konpromisoez gain, nekazariak borondatezko konpromiso gehigarri hauetakoren bat hartu ahal izango dute:

- A.2.3.1.2.1.- Bigarren mailako konpromisoak:
  - 1. borondatezkoa: labore txandaketa beste urtebete luzatzea, 3 urtetik 4ra, lekaleen kasuan izan ezik. Laguntza eskaeraren xede diren labore guztiei aplikatuko zaie nahitaez, eta uneren batean laguntza eskaeraren xede izango diren lursail guztietan betetzen dela kontrolatuko da, onuraduna gorabehera (konpromiso baztertzaila da lurzatian, eta bigarren mailakoa ustiategian).
  - A.2.3.1.2.2. – Konpromiso baztertzailak:
    - 2. borondatezkoa: berdean lurperatzeko nahitaezko laborantza konpromisoa zabaltzea konprometitutako azaleraren heren batera (1/3).
    - 3. borondatezkoa: berdean lurperatzeko nahitaezko laborantza konpromisoa zabaltzea konprometitutako azaleraren bi herenetara (2/3).
    - 4. borondatezkoa: berdean lurperatzeko nahitaezko laborantza konpromisoa zabaltzea konprometitutako azaleraren bikoitzera.

#### A.2.3.2. Konprometitutako azalerak:

- Konprometitutako azalerak urtero mantendu behar dira. Konprometitutako azalera bat etorriko da konpromisoa indarrean dagoen bitartean ordaindutako gehieneko azalarekin.

- Urtero, hasiera batean konprometitutako azalera handitzeko aukera izango da. Urteko azalera gehikuntzak ordaintzea aurrekontu baliabideen mende egongo da. Gehikuntza hori diruz lagundua bada, nekazaritza eta ingurumen kontratu sinatuaren iraupen epea amaitu artean eutsi beharko zaio azalera konprometitu berriari.

- Nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoa indarrean dagoen bitartean, konprometitutako gehieneko azalera gehienez ehuneko 20 murriztu ahal izango da.

#### A.2.4 Dokumentazio berezia

Laguntza eskaeran, kontsulta baimentzeaz gain, edo, halakorik ezean, 9. artikuluan oro har adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, honako dokumentu hau aurkeztu beharko da:

- Aholkularitza kontratua, lagundutako laboreen zuzendaritza tekniko egiaztatzen duen teknikari eskudun batekin.

#### A.2.5. Laguntzaren zenbatekoa

Laguntza urteko prima bat da, eskatutako baldintzak eta konpromisoak betetzen dituen labore diruz lagungarrien hektarea bakoitzeko. Hauek dira urteko primak:

- Oinarrizko konpromisoak:

- 1. multzoa.– Gizakiok jateko aledun lekaleak, lur ureztatuetan udan lantzen direnak: 240 euro/ha.
- 2. multzoa. – Lur ureztatuetan udan lantzen diren baratze estentsiboak: 430 euro/ha.
- 3. multzoa. – Hazitarako patata eta gizakiok jateko patata: 450 euro/ha.
- 4. multzoa.— Azukre erremolatxa: 450 euro/ha.

- Borondatezko konpromisoak:

- 1. borondatezkoa: Txandaketa luzatzea: 150 euro/ha.
- 2. borondatezkoa: Berdean lurperatutako laborearen azalera 1/3 gehitzea konprometitutako azaleran: 50 euro/ha.
- 3. borondatezkoa: Berdean lurperatutako laborearen azalera 2/3 gehitzea konprometitutako azaleran: 100 euro/ha.
- 4. borondatezkoa: Berdean lurperatutako laborearen azalera gehitzea konprometitutako azaleraren bikoitzera: 150 euro/ha.

Laguntzaren zenbatekoa ez da hektareako 600 eurotik gorakoa izango.

Ordainketak beheranzkoak izango dira onuradun bakoitzeko hektarea atalase baten gainetik:

- 40 ha edo gutxiagoko azalera: primaren ehuneko 100.
- 40 ha-tik gorako eta 80 ha edo hortik beherako azalera: primaren ehuneko 60.
- 80 ha-tik gorako azalera: primaren ehuneko 30.

#### A.3. Biodibertsitaterako erlezaintza (6501.4)

##### A.3.1 Helburua

Esku hartze hori erlezaintza sustatzeko eta mantentzeko hartu da, bai nekazaritzaren eremutik bai erlezaintzaren eremutik, EAEko biodibertsitateari ekarpen handia egiten diolako. Europako Parlamentuaren 2018ko martxoaren 1eko Ebazpenak, Europar Batasuneko erlezaintza sektorearen etorkizunari eta erronkei buruzkoak (2017/2115 (INI)), kontuan hartutakoetan ezartzen du erlezaintza sektorea funtsezkoa dela Europar Batasunerako, eta ekarpen nabarmena egiten diola gizarteari ingurumenaren ikuspegitik, oreka ekologikoari eta dibertsitate biologikoari eusteko.

##### A.3.2 Dirulaguntza jasotzeko baldintzak eta onuradunen konpromiso baztertzailak:

- Abere Ustiategien Erregistroan inskribatutako erlezaintzako ustiategien titularrak izan behar dute.

- Gutxienez 80 erlauntz eduki behar dituzte inskribaturik Abere Ustiategien Erregistroan.

- Kokaguneen, mugimenduen eta tratamenduen oharrak eguneratuta eduki behar dituzte erlezaintzako erregistro liburuan.

- Barroasiaren eta horri lotutako gaixotasunen aurkako borroka sistema bat aplikatzea, Abeltzaintza Zerbitzu egokiak agindutakoaren arabera.

- Erlezaintzako elkarte bateko kide izatea edo kanpoko aholkularitza teknikoa izatea.

- Ezti ekologikoko erlauntz bereziak izanez gero, Ekoizpen Ekologikoari buruzko arauen arabera ekoitzi izana justifikatu beharko da.

- Erlategi bakoitzak ez du izango 80 erlauntz baino gehiago, salbu eta negu pasan eta/edo beste lurralde batzuetara aldatzean. Erlezain beraren erlategien arteko gutxienezko tartea 500 metrokoa izango da. Ekoizle beraren elkarren ondoko erlategien artean distantzia hori errespetatzen ez bada, baina guztira 80 erlauntz baino gehiago ez badaude, konpromisoa betetzen dela ulertuko da.

- Transhumante gisa tipikatutako ustiategi bat bada, urtero ustiatze plan bat aurkeztu beharko du, erlauntzak mugitzeko aurreikuspenak barne hartzen dituena (egonaldia; transhumantzia plana, egokia bada; kokaguneak).

#### A.3.3 Konpromiso espezifikoak

##### A.3.3.1 Onuradunak

Onuradunak, laguntza indarrean dagoen aldian, honako konpromiso hauek bete beharko ditu:

- Oinarrizko konpromisoak:

– Euskal Herritik kanpoko transhumantzia erlauntzen gehienez ehuneko 80k egin ahal izango du.

- Konpromiso nagusiak:

– Erlauntzak urtean sei hilabete jarraian, behintzat, egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoko leku berean kokatuta, urtariletik urrira arteko hilabeteetan, bi hilabete horiek barne.

##### A.3.3.2 Konprometitutako erlauntzak:

- Konprometitutako erlauntzak urtero mantendu behar dira. Konprometitutako erlauntzak bat etorriko dira konpromisoa indarrean dagoen bitartean ordaindu diren gehieneko erlauntzekin.

- Urtero gehitu ahal da hasieran konprometitutako erlauntzen kopurua. Erlauntzen urteko gehikuntzak ordaintzea aurrekontu baliabideen mende egongo da. Gehikuntza hori diruz lagundutakoa bada, konprometitutako erlauntzen kopuru berriari eutsi beharko zaio sinatutako nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoaren indarraldia amaitu arte.

- Konpromisoa indarrean dagoen bitartean, konprometitutako gehieneko erlauntz kopuruaren gehienez ehuneko 10 murriztu ahal izango da. Nolanahi ere, kontuan hartuko da azaleraren murrizketa zuzenean onuradunari egotz dakioken edo beste inguruabar batzuei egotz dakioken, bereziki "Vespa velutina"ren erasoek eragindako arazoei; kasu horretan, ez da laguntza murriztuko konprometitutako azalerari ez eusteagatik.

#### A.3.4 Dokumentazio berezia

Laguntza eskaeran, kontsulta baimentzeaz gain, edo, halakorik ezean, 9. artikuluan oro har adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, honako dokumentu hauek kontsultatzeko baimena eman beharko da:

– Erlezaintzako Elkarteko kide izatearen edo kanpoko aholkularitza teknikoa izatearen egiaztagiria.

Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta berak aurkeztu beharko ditu eskakizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Nolanahi ere, onuradunak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Transhumante gisa tipifikatutako ustiategi bat bada, urteko ustiapen plana, erlauntzen kokapenak (koordinatuetan) eta haiek mugitzeko aurreikuspenak jasotzen dituen, egonaldiaren iraupena eta transhumantzia plana adierazita, eredu normalizatuaren arabera.
- Erlezaintzako erregistro liburua; bertan erlategien kokapenak, mugimenduak eta kanpainen zehar egindako tratamenduak jasoko dira, eredu normalizatuaren arabera.
- Ezti ekologikoko erlauntz bereziak izanez gero, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko (ENEK) Operadoreen Erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria.

#### A.3.5. Laguntzaren zenbatekoa

Laguntza honetan, urteko prima bat ematen da erleek nektarra biltzeko erabiltzen duten hektarea bakoitzeko, kantuan hartuta erlauntz bati nektarra biltzeko 2 hektarea dagozkiola. Hona hemen zenbatekoak:

	PRIMA EURO/HA
Ezti arrunta	10,5
Ezti berezia	12,5
Prima gehigarria, <i>Vespa velutinaren</i> kontrola dela eta	2,8

Ezti berezizat joko da Ekoizpen Ekologikoko arauen arabera ekoitzi dena.

*Vespa velutina* kontrolatzeagatiko prima gehigarria jasotzeko, espezie horren aurkako kontrol sistema bat aplikatu beharko da, Natura Ondarearen Zerbitzuak ezarritakoaren arabera.

## B. Nekazaritza ekologikoko nekazaritza eta ingurumen kudeaketako konpromisoak

### B.1 Nekazaritza Ekologikoa (6503)

#### B.1.1 Helburua

Esku hartze horren helburua da nekazaritza eta abeltzaintza jasangarria epe luzera bermatuko duten ekoizpen ekologikoko metodologiak erabil daitezen sustatzea, baita baliabide naturalak babestea ere, eta, bereziki, EBren Itun Berdean honako gai hauei buruz ezarritako helburuak lortzen lagunduko du:

- Gaur egun nekazaritza ekologikorako azalerak handitzeko dagoen joera indartzea, birmoldaketa eta mantentze erregimen egokien bidez, baita elikagaien katean produktu ekologikoen eskari gero eta handiagoa sustatzearen eta merkatuen antolaketaren bidez ere.
- Klima aldaketa arintzea eta nekazaritzatik eratorritako berotegi efektuko gasen emisioak murriztea.

- Mantenugaiak galtzea, nekazaritzako nitrogeno eta fosforoaren soberakina eta lixibiazioa murrizteko ekintza egokiak hastearen bidez.
- Biodibertsitatea; biodibertsitatearen galera geldiarazteko eta alderantzizatzeko, bereziki babestutako espezie eta habitatak, nekazaritza lurretako hegaztiak eta polinizatzaile basatiak, nekazaritza lurretako habitat babestuen kontserbazioa hobetzeko ahaleginak areagotzearen bitartez, NPEa finantzatzeko ezarritako lehentasuneko ekintza esparruarekin bat etorritik.

#### B.1.2 Dirulaguntza jasotzeko baldintzak

##### B.1.2.1 Onuradunak

- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko (ENEEK) Operadoreen Erregistroan inskribatuta egotea laguntza eskaera aldatzeko epea amaitzen den egunean.
- Nekazaritza ekoizpen ekologikoari buruz dagoen araudia betetzea. Ekintza hori erabatekoa da ekoizpen baldintzei eta baldintza horiek betetzeko kontrol mekanismoei dagokien guztian.
- Ustiategiak gutxieneko azalera hau izatea: ortuarien 1.000 m<sup>2</sup>ko labore ekologikoak edo 5.000 m<sup>2</sup>ko labore ekologikoak.
- Ezingo dira izan MAEn fruta eta barazki ekoizleen elkarrekin aurreikusitako ekoizpen ekologikorako laguntzen onuradun.

##### B.1.2.2. Lurzatiak

- Lurzatiak ekoizpen ekologikoa ziurtatzeko ENEEKen kontrol sisteman inskribatuta egon behar dira laguntza eskaera aldatzeko epea amaitzen den egunean.
- Gainera, ardogintzarako mahastien kasuan, lurzatiek Arabako Mahastien Erregistroan inskribatuta egon behar dute.
- Belardi polifitoekin lotutako laboreei dagokien prima jasotzeko, ustiategi eskatzaileak larreen aprobetxamenduari bateragarria den ganadua izan behar du, edo ekologikoko edo nekazaritza ekologikora bihurtzeko prozesuko ziurtagiria izan behar du.
- Labore zurkaren lurzatiek landaketa erregular homogeneousak izan behar dituzte, eta ez da onartuko lerrokadura sinplerik, ezta oin isolaturik ere.
- Ez dira diruz lagunduko hainbat abeltzainek partekatutako herri larreetan dauden larre azalerak.

##### B.1.3 Konprometitutako azalaren konpromisoak:

- Konprometitutako azalera urtero mantendu behar dira. Konprometitutako azalera bat etorriko da konpromisoa indarrean dagoen bitartean ordaindutako gehieneko azalarekin.
- Urtero, hasiera batean konprometitutako azalera handitzeko aukera izango da. Urteko azalera gehikuntzak ordaintzea aurrekontu baliabideen mende egongo da. Gehikuntza hori diruz lagundua bada, nekazaritza eta ingurumen kontratu sinatuaren iraupen epea amaitu artean eutsi beharko zaio azalera konprometitu berriari.
- Nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoa indarrean dagoen bitartean, konprometitutako gehieneko azalera gehienez ehuneko 10ean murriztu ahal izango da.
- Konprometitutako azalera nekazaritza ekologikoko laborantza multzo guztiei lotuta egongo da.

##### B.1.4 Gutxieneko arauak

Nekazaritza ustiategi onuradunek NPEn Plan Estrategikoan esku hartze honetarako adierazten diren gutxieneko arauak bete behar dituzte (oinarrizko egoera):

– Baldintzetako nekazaritza eta ingurumeneko baldintza onei (NIBO) dagokienez:

–10. NIBO: Ongarritze jasangarria.

– Baldintzetako Kudeaketarako Lege Betekizunei (KLB) dagokienez:

–1. KLB: Ur politikaren esparruan jarduteko esparru komunitarioa ezartzea.

– 2. KLB: Urak nekazaritza iturrietatik eratorritako nitratoek eragindako kutsaduratik babestea.

– 8. KLB: Pestiziden erabilera jasangarria lortzeko jarduketa komunitarioaren esparrua ezartzea.

B.1.5 Dokumentazio espezifikoa.

Laguntza eskaeran, kontsulta baimenteaz gain, edo, halakorik ezean, 9. artikuluan oro har adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, honako dokumentu hauek kontsultatzeko baimena eman beharko da:

- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko (ENEK) Operadoreen Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.

- Laguntza jasotzen duten lurzatiak ekoizpen ekologikoa ziurtatzeko ENEK-en kontrol sisteman inskribatuta daudela frogatzen duen ziurtagiria.

- Belardi polifitoak izanez gero, abeltzaintzako espezieak ekoizpen ekologikoa ziurtatzeko ENEK-en kontrol sisteman inskribatuta daudela frogatzen duen ziurtagiria.

- Gainera, ardogintzarako mahastien kasuan, laguntzaren xede diren lurzatiak Arabako Mahastien Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzea.

Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta berak aurkeztu beharko ditu eskakizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

B.1.6 Laguntzen zenbatekoa

Laguntza, berez, nekazaritzarako azalerako hektarea bakoitzeko urtero ematen den prima bat da, nekazaritza ekologikoko labore multzoen arabera, beheko taula kontuan izanik.

Estali gabeko baratzeazaintzarako diruz lagun daitekeen gehieneko azalera 2 hektarea izango da. Horregatik, eskatutako baratzeako laboreen azalera 2 hektareatik gorakoa bada, eskatutako laboreen azalera osoa labore handiko baratzeazaintzaren multzoan sartuko da.

"Berotegiko baratzeazaintza" ekoizpen orientazioari lotutako prima ordaintzeko, esparruak plastiko azpiko baratzearen modalitatean deklaratu beharko dira, eta SIGPAC erabilerak berotegikoa izan beharko du.

Mahastien ekoizpen orientazioan, ustiategi bakoitzeko diruz lagundu daitekeen gehieneko azalera 40 hektarea izango da, eta horretarako kontuan hartuko dira bihurtzen ari diren azalera eta mantentzeak.

ENEKek nekazaritza ekologikoan edo nekazaritza ekologikora bihurtzeko prozesuan ziurtatutako AzLUen kopuruaren arabera zehaztuko da belardi polifito laborantza multzoaren gehieneko azalera diruz lagungarria. Horrela, AzLU batengatik hektarea bateko belardi polifito ziurtatua edo bihurtzen ari dena ordainduko da. Larreen aprobetxamenduarekin bateragarriak diren espezieak hartuko dira kontuan.

LABORE MULTZOAK	NEKAZARITZA EKOLOGIKORA BIHURTZEKO PRIMA (EURO/HA)	NEKAZARITZA EKOLOGIKOA MANTENTZEAGATIKO PRIMA (EURO/HA)
Zerealak eta industria laboreak:	245	223
Patata	451	354
Alpapa, bazka eta proteina landareak	216	192
Lekale aledunak	311	253
Fruitu lehorrak	448	372
Olibazaintza	300	229
Mahastizaintza (txakolina)	900	900
Mahastizaintza (Errioxako mahatsa)	514	440
Frutagintza	900	900
Baratzezaintza labore handian	496	338
Aire zabaleko baratzezaintza	1284	923
Berotegiko baratzezaintza	2013	1561
Belardi polifitua	294	264

### C. Baliabide genetikoak kontserbatzeko konpromisoak

#### C.1 Bertako animalia arrazak kontserbatzea (6505.1)

##### A.1.1 Helburua

Esku hartze honen helburua da desagertzeko arriskuan dauden eta nekazariak EAEko ustategietan denboran zehar mantendu dituzten bertako animalia arrazak kontserbatzea eta beraien hazkuntza sustatzea. Konpromiso hori oso neurri garrantzitsua da landa ingurunearen ingurumen, gizarte eta ekonomia jasangarritasunari dagokionez; izan ere, abeltzaintzaren biodibertsitateari eustea lagungarria da naturaguneak kontserbatzeko eta jardunbide tradizionalak mantentzeko.

#### C.1.2 Dirulaguntza jasotzeko baldintzak eta konpromiso baztertzailak:

##### C.1.2.1 Ustategi onuradunak:

- Dagozkion arrazen elkarreterako kide izatea eta honako arraza hauetako animaliak edukitzea eskaera bakarra aldatzeko epea amaitzen den egunean:

- Behiak: Betizuak, Montxinak eta Terreñiak
- Ardiak: Karrantzakoa eta Sasi Ardia
- Ahuntzak: Azpi Gorria
- Txerriak: Euskal txerria
- Zaldiak: Euskal Herriko basazaldia eta Pottoka
- Astoak: Enkarterriko astoa
- Hegaztiak: Euskal Oiloa eta Euskal Antzara

- Arraza Kontserbatzeko Programa betetzea, zeina ofizialki onetsi baita ekainaren 2ko 81/2015 Dekretuak, euskal arraza autoktonoak kontserbatu, hobetu eta sustatzekoak eta animalia arrazak sustatzen dituzten entitateak arautzekoak, ezarritakoarekin bat etorritik. Liburu genealogikoak kudeatzen dituen elkarteak hala eskatuz gero, informazioa eman beharko du arrazaren jarraipena egiteko eta balorazioak egiteko.

#### C.1.2.2 Animaliak:

- Eskatutako AzLUek dagokion arrazaren Genealogia Liburu Ofizialean erregistratuta egon behar dute, bai eta SITRANen ere, eta aitortutako arraza bat etorri beharko da laguntza eskatzen den arrazarekin.

- Dagokion arrazarenazienda larrien unitateen (AzLU) honako gutxienezko kopuru hau izatea (animaliak III. eranskinean ezarritakoaren arabera bihurtuko dira AzLUra):

- Bi AzLU arraza guztietarako, hegaztiak izan ezik.
- AzLU bat hegaztietarako.

#### C.1.3. Konpromiso espezifikokoak

##### C.1.3.1. Pertsona onuradunak

Onuradunak, nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoa indarrean dagoen aldiaren, honako konpromiso hauek bete beharko ditu:

- Konpromiso nagusiak:

- Ustiatzearen urteko batez besteko azienda zama hektareako 2 AzLU baino handiagoa ez izatea. Azienda zamaren konpromisoa ez zaie aplikatuko Euskal Oiloa, Euskal antzara eta Euskal txerria arrazei, ezta Sasi Ardia, Azpi Gorria, Betizua edo Enkarterriko asto arrazaren lehen zortzi AzLUei ere.

##### C.1.3.2. Konprometitutako AzLUak:

- Eskatutako arraza mota bakoitzerako konprometitutako AzLUen kopurua mantendu behar da urtero-urtero. Konprometitutako AzLUak bat etorriko dira konpromisoa indarrean dagoen bitartean ordaindutako gehieneko AzLUekin.

- Urtero gehitu ahalko da hasieran konprometitutako AzLUen kopurua. Konprometitutako AzLUen kopuru berria hasieran sinatutako nekazaritza eta ingurumen konpromisoaren aldia bukatu arte mantendu behar da, baldin eta gehikuntza hori diruz lagundu bada.

- Nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoa indarrean dagoen bitartean, konprometitutako gehieneko AzLUa gehienez ehuneko 10 murriztu ahal izango da.

#### C.1.4 Berariazko dokumentazioa.

Laguntza eskaeran, kontsulta baimentzeaz gain, edo, halakorik ezean, 9. artikuluan oro har adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, honako dokumentu hauek kontsultatzeko baimena eman beharko da:

- Laguntza eskatu den arrazako edo arrazetako abereen elkarteko kide izatearen ziurtagiria.
- Liburu genealogikoarekin lotutako informazioa.

Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta berak aurkeztu beharko ditu eskakizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

#### C.1.5 Laguntzaren zenbatekoa

Laguntza honetan, AzLU bakoitzeko urteko prima bat emango da, eta ganadu mota eta arrazaren arabera kalkulatu da, kontuan izanik nola egin behar den AzLUra bihurtzea III. eranskinean jasotako taularen arabera, honako kopuru hauetan:

		PRIMA EURO/AzLU
BEHIAK	Betizua	
	Montxina	250
	Terreña	
AHUNTZAK ARDIAK	Azpi Gorria	
	Karrantzako ardia	234
	Sasi Ardia	
ZALDIAK	Pottoka	250
	Enkarterriko astoa	
	Euskal Herriko basazaldia	189
HEGAZTIAK	Euskal Antzara	200
	Euskal Oiloa	200
TXERRIAK	Euskal Txerria	200

Ordainketarako zehaztutako AzLU kopurua izango da Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuan erregistratuta egonik arrazaren Liburu Genealogikoan ere erregistratuta dauden AzLUen kopurua.

## III. ERANSKINA

## DEFINIZIOAK

Ustiategiarenazienda zama: eskaera bakarrean aitortutako ustiategiaren bazka azalera osoaren hektareen eta zehaztutako AzLUen (azienda larrien unitatea) arteko zatidura izango da.

Nekazaritzako ustiatagia: nekazaritza ustiategiaren titular berak administratutako ekoizpen unitateen multzoa, Espainiako lurraldean dagoena.

Ezinbestezko kausak eta salbuespenezko inguruabarrak: Kode Zibilaren 1105. artikuluan aurreikusitako ezinbestezko kausak aplikatuko dira, baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduaren 3. artikuluan aurreikusitakoak ere. Agintari eskudunek ezinbestezko beste kausa batzuk eta salbuespenezko inguruabarrak ezar ditzaketen arren, honako hauek hartuko dira halakotzat:

- Onuraduna hiltzea edo desagertzea.
- Onuradunaren lanerako ezintasun luzea.
- Hondamendi natural larria edo hondamendi naturalarekin pareka daitekeen fenomeno klimatologiko kaltegarria, ustiategiko nekazaritza lurri kalte handia eragin diona.
- Ustiategiko abeltzaintzako lokalak ustekabeen suntsitzea.
- Epizootia, agintaritzak eskudunak onartua, onuradunaren ustiategiko azienda bati edo osoari eragin diona.
- Mikroorganismo patogenikoek edo ingurumen faktoreek eragindako landare izurritea edo landare gaixotasuna, agintaritzak eskudunak onartua eta onuradunaren ustiategiko laboreen zati bati edo guztiei eragin diona.
- Ustiategi osoa edo zati handi bat desjabetzea, baldin eta desjabetze hori ezin bazen aurreikusi eskaera aurkeztu zen egunean.
- Laborearen edo saldoaren zati batean edo osoan ekoizpena galtzea, eskumena duen agintaritzak onartu dituen basa faunak eragindako kalteengatik.

Eskaera bakarra: Kudeaketa eta Kontrol Sistema Integratuarekin parekatutako zuzeneko ordainketen esku hartzeen eta landa garapeneko esku hartzeen laguntza komunaren eskaera, abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuaren IV. tituluan ezarritakoaren arabera.

Nekazaritzako azalera: laborantzako lur, larre iraunkor edo labore iraunkorretarako erabiltzen den edozein azalera, lurrak erabiltzeko sistemak barne, lur horietan bertan zuzenak mantentzea eta nekazaritza uztartzen dituztenak.

Bazka azalera: larre iraunkorrak, belarrak eta bestelako belar bazkak landatzeko erabiltzen den edozein azalera.

Nekazaritza ustiategiaren titularra: pertsona fisikoa edo juridikoa, edo pertsona fisiko edo juridikoen talde oro, ondasun erkidegoak, jaraunspen jasogabeak edo oinordekoen erkidegoak, merkataritza helbururik gabeko sozietate zibilak eta titulartasun partekatuko araubideko ustiategiak barne, nekazaritza ustiategian egindako nekazaritza jardueri buruzko erabakiak hartzeko ahalmena duena, etekinak lortzen dituena eta nekazaritza jardueratik eratorritako enpresa arriskua bere gain hartzen duena. Ustiategiko abeltzaintzako ekoizpen unitateei dagokienez, Abeltzaintza Ustiategien Erregistroan inskribatuta egon beharko du, martxoaren

26ko 479/2004 Errege Dekretuan araututakoaren arabera. Ustiatetik nekazaritza ekoizpeneko unitateei dagokienez, Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Orokorrean (aurrerantzean, NEEO) inskribatuta egon beharko du (erregistro hori urtarrilaren 16ko 9/2015 Errege Dekretuak arautzen du, lehen mailako nekazaritza ekoizpenean higie arloko Europar Batasuneko araudia aplikatzeko baldintzak arautzen dituenak), edo, bestela, Nekazaritza Ustiatetien Erregistro Autonomikoan (aurrerantzean, NUE), abenduaren 27ko 1054/2022 Errege Dekretuan araututakoaren arabera, eta hura indarrean jartzearekin bat.

AzLU: azienda larrien unitatea. Azienda larrien unitateak kalkulatzeko, foru dekretu honetako laguntzen ondorioetarako, honako baliokidetasun taula hau hartuko da kontuan, abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuaren V. eranskinean argitaratu den bezala (1048/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, 2023tik aurrera zuzeneko ordainketa moduko esku hartzeak aplikatzeari eta Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan betekizun komunak ezartzeari, eta kudeaketa eta kontrol sistema integratuaren eskaera bakarria arautzeari buruzkoa):

ANIMALIA MOTAK		AzLU KOPURUA
Behiak	1 urtetik beherakoak	0,4 AzLU
	Urtebete baino gehiago eta bi urte baino gutxiagokoak.	0,7 AzLU
	Bi urteko edo gehiagoko arrak	1,0 AzLU
	Bi urteko edo gehiagoko zekorrak	0,8 AzLU
	Esnea ematen duten behiak, bi urtekoak edo gehiagokoak	1,0 AzLU
	Beste behi batzuk, bi urtekoak edo gehiagokoak	0,8 AzLU
Ardiak eta ahuntzak		0,1 AzLU
Zaldiak		0,8 AzLU
Txerriak	> 20 kg-ko pisu bizia duten txerrikumeak.	0,027 AzLU
	> 50 kg-ko ugaltzeko txerri emeak	0,5 AzLU
	Beste txerri batzuk.	0,3 AzLU
Arrautzatarako oiloak		0,014 AzLU
Etxeko beste hegazti batzuk		0,03 AzLU

Azienda zama kalkulatzeko eta nekazaritza ekologikoko esku hartzean AzLUak zehazteko, aurreko urteko uztailearen 1etik deialdiaren urteko ekainaren 1era bitartean ustiatetian zegoen abere errolda zenbatuko da, hilekoe arteko batez besteko gisa kalkulaturik. Nekazaritza ekologikorako laguntzaren kasuan, ekoizpen sistema horretan inskribatutako espezieak bakarrik hartuko dira kontuan. Nekazaritza ekologikora bihurtzea aldi horretan gertatu bada, espeziea operadoreen erregistroan alta eman den hilean hasiko da batez bestekoa kalkulatzeko, eta bihurtze aldiaren dauden hilabeteak soilik hartuko dira kontuan.

Ustiategi profesionala: Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan autokontsumo gisa ageri ez diren guztiak dira.